

DEIALDIA

Gourmets

2018

Madrid

Data: 2018ko maiatzaren 7tik al 10era

Tokia: IFEMA azoka esparrua

Maiztasuna: Urtero

Sektorea: Hainbat banaketa kanaletako profesionalak (inportatzaileak/ esportatzaileak, banatzaileak, prozesatzaileak, banaketa handia eta HO.RE.CA. kanaleko espezialistak).

Jatetxeetako jabeak eta kalitatezko elikaduraren segmentuko espezialistak

Izena emateko epea: 2017ko irailaren 30a

Informazio gehiago: Tel.: 943 00 03 00  
Jon Zabaleta: [jzabaleta@camaragipuzkoa.com](mailto:jzabaleta@camaragipuzkoa.com)

## DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte-hartzeko baldintzak

Parte-hartzeko eredia eta kostua

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Eskeinitako zerbitzuak

Izen-emate formularioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, Elikaduraren Euskal Industria kanpoan sustatzen laguntzeko jardueren barruan, **2018ko SALÓN DE GOURMETS** azokan Euskadiko enpresen baterako parte hartzea antolatu du, HAZI Fundazioaren bitartez.

Azokak aurten hogeita hamabigarren edizioa beteko du.

Eusko Jaurlaritzak espazio bat izango du 2018ko SALON DE GOURMETS azokan, bertan parte hartzeko interesa duten Euskal Elikadura Industriako enpresa guztientzat.

# Gourmets 2018 azokaren Izaera

Erakusketa eremua gehienez: 31.500 m<sup>2</sup>

Erakusketariak 2017an: 1.630

Bisitariak 2017an: 52 herrialdetako 90.000 bisitari

Azokaren webgunea: [www.salondegourmets.com](http://www.salondegourmets.com)

Salon de Gourmet azoka – Kalitateko Elikagaien eta Edarien Azoka espainiar gastronomiaren ekitaldi aintzidaria da, izaera internazionala eta guztiz profesionala du, kalitate handiko elikagai eta edariei eskainia.

Gama altuko nekazaritzako elikagaien fabrikatzaileen eta kontsumitzaileen topagunea da, eta European erreferentziazko azoka profesionala bihurtu da kalitate handiko gastronomiaren sektorean.

Euskadiren presentzia 580 metro koadroko esparru abtean elkartu zen, eta bertan 49 enpresa sartu ziren.

**ERAKUSKETA EREMUA:** 31.500 m<sup>2</sup>.

**ERAKUSKETARIAK 2017:** 1.630 erakusle izan ziren bertan, 20.000 m<sup>2</sup> inguruko esparru batean.

**BISITARIAK 2017an:** 90.000 bisitari 52 herrialdetako.

**AZOKAREN WEBGUEA:** [www.salondegourmets.com](http://www.salondegourmets.com)

# Parte-hartzeko Baldintzak

Joateko konpromisoa  
Euskal Herrian egindako produktuak  
Ebaluazio-inkesta

Ekitaldian parte hartzen dute egoitza Euskal Autonomia Erkidegoan duten enpresa produktoreek bakarrik, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan izena emanda badaude.

## **Azokaren aurretik:**

- Enpresaren ordezkari baten aldetik joateko konpromisoa eta kuota ordaintzea; **beraz, Euskadiko pabiloian sartuko dela jakinarazten denetik ezingo da ekitaldian baja eman.** Halaberharrezko kasuetan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.
- Ekitaldia irekitzeko bezperan enpresak derrigor egon behar dira, esaten zaien orduan merkantzia jasotzeko, eta beraien erakustokiaren dekorazioa amaitzeko, jardunaldia hasi baino behar besteko aurrerapenez.

## **Azokan zehar:**

- **Euskal Autonomia Erkidegoko produktuak baino ezingo dira erakutsi.** Ezin izango da, inola ere, beste autonomia erkidego batzuetako produktuak aipatu, ezta aurkeztu ere.
- Standean azokako egun guztietan eta zabalik dagoen ordu guztietan eman behar da arreta.
- Enpresa batek azokaren ordutegi ofizialean standeko arreta emateari uzten badio, salbuespenezko arrazoi justifikaturik gabe, azokaren hurrengo ediziorako lehentasunezko eskubidea galduko du (izena ematearen hurrenkera, etab.). Haren eskariari bakarrik erantzungo zaio baldin eta leku librerik badago izena emateko eta ordaintzeko datetan egindako gainerako eskari guztiei erantzun eta gero. Halaber, enpresa batek stand-a abandonatzearen ondorioz Eusko Jaurlaritzak –presentzia bateratuaren antolatzailea den heinean– zigorren bat jasotzen badu, azoka antolatzaileen eskutik, zigor hori berehala jasanaraziko zaio arau haustea egin duen enpresari.
- Azoka amaitzerakoan produktu guztiak behar bezala jaso eta standeko elementuak entregatu, jaso ziren egoera berberetan.

## **Azokaren ondoren:**

- **Ebaluazio galdetegia** bete eta eskura entregatu azokatik joan baino lehen.

# Parte-hartzeko eredua eta kostua

## Parte-hartzeko eredua

2018ko edizioan Eusko Jaurlaritzak stand bat izango du, eta bertan kalitateko nekazaritzako elikagaietan interesa duten eta parte hartu nahi duten enpresak sartuko dira.

Azken edizioetako esperientzia positiboaren ondoren, zeinetan stand partekatuaren kontzeptua eskaini zen, 2018ko edizioan parte hartzeko modu hauek eskaintzen dira:

- Stand **PARTEKATUA** eredua, enpresen artean berezi gabeko gune komuna.
  - \* Stand eredu horretan parte hartu nahi duten enpresek kontuan hartu behar dute, lekuagatik, ez dutela tarterik izango hotz bitrinak jartzeko, ezta apaintzeko elementu osagarriak ere.
- Stand **INDIBIDUALA** eredua.
- Stand **BIKOITZA** eredua.

# Parte-hartzeko eredua eta kostua

## Parte-hartzeko kostua

GOURMETS 2018an, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailetik, Euskal Autonomia Erkidegoko lehen sektorearen produktua eraldatu eta merkaturatzen duten enpresen parte hartzea bultzatuko da.

Ondoren ekintzetan parte hartzeak dakarren **kostua finantzatzeko diru laguntzetarako** egingo den **sailkapena** adieraziko dugu.

### 1 Motako Enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen diren enpresak. Enpresak produktuaren jatorria egiaztatu beharko du.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen **diru laguntza %70** izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

#### Stand partekatua:

1.001,70 € + % 21 BEZ = 1.212,06 €

#### Stand indibiduala:

2.003,40 € + % 21 BEZ = 2.424,11 €

#### Stand bikoitza:

4.006,80 € + % 21 BEZ = 4.848,22 €

### 2 Motako Enpresa

Euskadin behar duten lehen sektoreko produktorik egon ez eta Euskaditik kanpoko lehengaiak erabiltzen dituzten enpresak.

Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen **diru laguntza %50** izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

#### Stand partekatua:

1.669,50 € + % 21 BEZ = 2.020,10 €

#### Stand indibiduala:

3.339 € + % 21 BEZ = 4.040,20 €

#### Stand bikoitza:

6.678 € + % 21 BEZ = 8.080,40 €

### 3 Motako Enpresa

Batez ere Euskadiko lehengaiz hornitzen EZ diren enpresak, Euskadin behar duten lehen sektoreko produkzioa egonda ere. Eusko Jaurlaritzak horrelako enpresentzat emango duen **diru laguntza %30**ekoa izango da, eta kostuak honela geratzen dira:

#### Stand partekatua:

2.260 € + % 21 BEZ = 2.734,60 €

#### Stand indibiduala:

4.520 € + % 21 BEZ = 5.469,20 €

#### Stand bikoitza:

9.040 € + % 21 BEZ = 10.938,40 €

Parte hartzeko kuota bi zatitan ordainduko da, baina faktura bakarra izango da:

- Zenbatekoaren %50 + %21 BEZ izena emateko orduan eta espazioa erreserbatzeko kontzeptuarekin.
- Gainerako zenbatekoa jardunaldia egin baino 60 egun lehenago ordaindu beharko da.
- Zenbateko osoa jasoko duen faktura bakarra emango da espazioaren erreserbaren lehen ordainketa jasotakoan.

# Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

Izen-emate formularioa beteta  
Ordainagiria

Izena emateko azken eguna: **2017ko irailaren 30ean**

Parte hartzeko interesa baduzu, lekua mugatua denez, izena-emate formularioa bete eta ordainagiria ahalik eta azkarren bidaltzea gomendatzen dugu Jon Zabaletari: **jzabaleta@camaragipuzkoa.com**

**Enpresa parte hartzaileen hautaketa** izena emateak jasotzeko hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaria kontuan hartzeko, honakoa aurkeztu behar duzu:

## 1. Izen-emate formularioa bete

Informazio horretatik bertatik transkribatuko dira datuak azokaren katalogo ofizialerako eta sustapenerako lantzen diren gainerako elementuetarako.

Izen-emate formularioa



## 2. Gunea erreserbatzeko kuotaren ordainagiria

Ordainagiria Jon Zabaletari zuzenduta emailez bidali behar da: **zabaleta@camaragipuzkoa.com**

Ordainketa banku transferentzia bidez egingo da:

**Kontzeptua:** "Enpresaren izena + GOURMETS 2018"

**Kontu zenbakia:** ES49-3035-0179-61-1791069900 HAZI Fundazioaren izenean (LABORAL KUTXA). Laboral Kutxaren Bic-a: CLPEES2MXXX.

**Bigarren zatiaren ordainketa** ekintza egin baino **60 EGUN LEHENAGO** egingo da.

**Izena emateko azken eguna: 2017ko irailaren 30ean**

# Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak dagokion **zenbatekoaren faktura igorriko dizue, izena emateko epea bukatutakoan parte hartzea baieztatu eta gero.**

## **GARRANTZITSUA:**

Izen ematea formalki egindakotzat jotzeko, ESKATUTAKO DOKUMENTU GUZTIAK bidali behar dituzue, eta izena emateko data gisa, ondorio guztietarako, izena ematearen ordainketaren data agertuko da.

Eskatutako dokumentuak bidaltzeak EZ DU ESAN NAHI enpresak Eusko Jaurlaritzaren standean parte hartuko duela, izan ere, gutxieneko enpresa kopuru bat egon behar da hori egiteko. Eusko Jaurlaritzak izena ematearen onarpena jakinaraziko du.

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO PABILOIAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Halabeharrezko kasuetan baino ez, antolakuntzak eskubidea erreserbatzen du enpresak aurkeztutako arrazoiak baloratzeko eta, behar bada, ordaindutako zenbatekoaren portzentaje bat itzultzeko.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino handiagoa bada, hautatu ez diren enpresek eskubidea izango dute aurrez izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

# Eskeinitako zerbitzuak

- 1) Eremuaren kontratazioa
- 2) Euskadiko stand-aren dekorazioa
- 3) Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak, HAZI Fundazioaren bitartez, hurrengo zerbitzuak eskainiko ditu:

## Eremuaren kontratazioa

Espazio promozional batekin parte hartuko da, eta hori enpresa ko-erakusle bakoitzerako 9 m<sup>2</sup>ko **stand indibidual** pertsonalizatuetan eta **stand partekatuak** izango dituen gune batean banatuko da.

## Euskadiko Stand-aren dekorazioa

Standa hornitzeko dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira EAEko stand-eko erakusle guztientzat, eta, edonola ere, hau egongo da:

**Stand indibidualarentzako** (horma banatzaileekin): mahaia eta 4 aulki, erakusmahaia, enpresa erakuslearen errotulua, konexio elektrikoa eta biltegia hozkailuarekin eta harraskarekin.

**Stand partekatua** (hormarik gabe): erakusmahaia eta taburetea, enpresaren errotulua, erabilera komunitarioko bilera mahaia, erabilera komunitarioko hozkailudun biltegia, erabilera komunitarioko harraska eta konexio elektrikoa.

*Standetako oinarrizko altzarietan, elementu elektrikoetan edo elektrizitateko beharretan egin beharreko aldaketa oro, horien hazkundea edo aldaketa eragiten badu, ko-erakusle bakoitzak zuzenean kontratatuko du, eta bere gain hartuko du gehitutako kostua dekoratzailearekin, zeinak zuzenean fakturatuko dion zerbitzua.*

## Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren bidalketa bateratu bat antolatuko du esleitutako garraiolari ofizialak adierazten duen lekutik merkantzia standean bertan entregatu arte.

Garraiolariak egingo du merkantzia bidaltzearen kostuaren faktura eta enpresa erakusleak ordainduko du oso-osorik.

Bere garaian, esleipena duen enpresa garraiolariaren datuak emango dira.

Esaten zaien orduan, **enpresak derrigor egon behar dira merkantzia jasotzeko**, eta beraien erakustokien dekorazioa amaitzeko, ekitaldia hasi baino lehenago. **Adierazitako orduan merkantzia jasotzera agertzen ez diren enpresek zigorra jasoko dute.**



# Eskeinitako zerbitzuak

- 4) Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk
- 5) Azokaren katalogo ofizialean sartzea
- 6) Euskadiko stand-a mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

## Hotz kamerak eta beste etxetresna elektriko batzuk

Hotz kameren eta beste etxetresna elektrikoen alokairua erakuslearen kontu izango da.

Hala ere, Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du zerbitzu horren kontratazioa, eta hornitzaileak zerbitzuak zuzenean erakusleari fakturatuko dizkio.

## Azokaren katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak azokara joaten diren enpresa erakusle guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean agertzeko egin beharreko tramite guztiak egingo ditu; bertan ekitaldiko erakusle guztiak agertzen dira erregistratuta (izena emateko fitxan jasotako datuak agertuko dira).

Halaber, informazio hori atzerriko erosleekin bilera agendetan parte hartzeko interesa adierazi duten enpresak hautatzeko erabiliko da.

## Euskadiko stand-a mantentzeko lanak (garbiketa, elektrizitatea, ura, etab.)

Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen ditu garbiketako zerbitzu orokorrak, elektrizitatea, ura, etab., eta, oro har, stand-a egoki mantentzeko lanak.

Stand bakoitzerako potentzia elektrikoko tope batzuk eta gehienezko kontsumo batzuk egongo dira, eta horren berri jakinaraziko zaie ko-erakusleei parte hartzea prestatzeko tramiteak hasten direnean. Enpresa erakusleren batek tope horiek gainditu nahi baditu, kostua bere gain hartu beharko du.